



SURFAREN HASTAPEN KANPAINA 2021-2022:

FINANTZAKETA, IZEN-EMATEA ETA ORDAINEKETA PROZEDURAK

Dokumentu honek surfaren hastapen kanpainaren finantziarioaren inguruko informazioa jasotzen du, helburua gardentasuna izanik, hala, eragileek, alde batetik, finantzaketa prozedurak ezagutu eta, bestetik, eskola kiroleko jardueren gastuak nola finantzatzen diren ezagutu dezaten.

1. FINANTZAKETA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Surf Federazioarekin duen hitzarmenean 18.400 € bideratzen dira eskola kiroleko jardueretara. Horietatik 10.000€ hastapen kanpainako jarduera finantzatzera bideratzen dira. Diru-laguntza horrekin urtero Gipuzkoako 2.500 bat ikasleek surfeko hastapen kanpainan prezio murriztuan parte hartzeko aukera dute. Kopuru hori bi zati berdinetan banatzen da; zati bat udazken kanpainara bideratzen da eta bestea udaberriko kanpainarako.

Gainontzekoa zatia (8.400€) hastapeneko jarduera aurrera eramateko kudeaketa gastuak estaltzeko eta parte hartzeko lehiaketa ibilbideko bestelako jarduera batzuk garatzeko erabiltzen dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Surf Federazioari diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egiten dio; %80 otsailaren bukaera eta %20 azaroaren bukaeran gutxi gora-behera.

2. IZEN EMATE PROZEDURA

2020-2021 ikasturtera arte onartutako plazen kopurua kreditu erabilgarria agortu arte izan da, izen-emateko ordenaren arabera. Ikastetxe zein surf eskola batzuk beren desadostasuna azaleratu diote Gipuzkoako Foru Aldundiari orain arte erabilitako izen-emateko prozedurari dagokionez eta, hori dela eta, datorren ikasturteari begira, izen-ematea egin ahal izateko ondorengo irizpideak txertatu dira:



1go pausua: Izen-emate epea eta ikastetxeek bete beharreko baldintzak

Hastapen kanpaina udazkenean eta udaberrian egiten da. Jarduera parte hartzeko izen-emate epea iraila eta urtarrilean irekiko da.

Ikastetxeek Gipuzkoako Surf Federazioaren aplikazioan izen-emateak egiteko astebeteko epea ezarriko da udazkeneko kanpainarako (ikasturte hasieran) eta udaberriko kanpainarako (Gabonak ostean). Izen-emate ordenak ez du eraginik izango plazen esleipenerako.

Ikastetxeek adi egon beharko dute izen-emate epea noiz irekitzen den jakiteko. Gipuzkoako Surf Federazioarekin harremanetan jarri ahal izango dira:

943 475 207 / gsf@euskalsurf.com / www.gipuzkoasurf.org

Surf ikastaroan parte hartzeko ikastetxeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Ikastaroan LH5, LH6, DBH1, DBH2, DBH3 eta DBH4ko hurrek parte hartu ahal izango dute (alebin, infantil eta kadete kategoriak).
- Lehentasuna izango dute aurreko ikasturtean parte hartu ez duten ikastetxeek.
- Ikastetxe batek ezin izango ditu ikasturte berean ziklo desberdinetako taldeak inskribatu (LH 5 eta 6; DBH 1 eta 2; DBH 3 eta 4).

2. pausua: Surf eskola hautatzea

Izen-ematea egin aurretik ikastetxeak surf eskola hautatu beharko du. Orain arte egin den bezala, beren artean adostuko dituzte egunak eta burutuko duten diziiplina (surf, bodyboard edo zutikako arrauna). Surf eskola bakoitzak erabakiko du bere ahalmen eta interesen arabera eskainiko duen diziiplina.

2021-2022 ikasturtetik aurrera hastapen kanpaina irakaskuntza eman ahal izateko, surf eskolek ondorengo irizpideak bete beharko dituzte:

- Istripu eta Ardura zibileko aseguruia egunean izatea.
- Lizentzia: Costas edo dagokion udalerriko udaletxearen jarduera lizentzia izatea.
- Begiraleek gutxieneko surf titulazioa izatea (1 maila edo baliokidea).
- Begiraleek euskara maila izatea (azken hau trantsizio epean).
- Instalakuntza eta material egokiak izatea behar guztiei erantzuna eman ahal izateko. irisgarriak, aldagela egokituak, material desberdinak haur eta gaztetxo guztietara egokitzeko denboraldiaren arabera, etab.
- Surf eskolak klubak diren kasuetan, bertako kide federatuak Gipuzkoako Federazioan federatuak izatea.
- Covid 19-rako protokoloa izatea.

Jarraian, aipatutako baldintzak betetzen dituzten surf eskolen zerrenda ikusi daiteke, bai eta bakoitzak eskaintzen duen diziiplina ere.



	Surf eskola/enpresa/klubak	Diziplinak
Deba	Yako Debako Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna
Donostia	Fortuna	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Free Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Groseko Indarra Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Patris Surf	Surfa/Bodyboard
	Pukas Surf Taldea	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Surf Eskola Bera Bera	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
Hondarribi	Hondarribi Surf Kirol Kluba HS2	Surfa/Surf Arrauna
Zarautz	Axi Muniain Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Moor Surf Eskola	Surfa
	Zarauzko Surf Elkarteko Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Shelter Surf Eskola	Surfa
	Zarauzko Essus Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Pukas Surf Eskola	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
Zumaia	Surfing Zumaia	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Zumaia spot	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard
	Ural experience	Surfa/Surf Arrauna/Bodyboard

3. pausua: Ikastetxeek Federazioan izen-ematea egitea [\(esteka\)](#)

Izen-emate epea irekitzen denean, ikastetxeek Gipuzkoak Surf Federazioaren web orrian google form inprimakian ondorengo informazioa adierazi beharko dute izen-ematea egiteko: hautatutako surf eskola, diziplina, ikastaro mota, ikasleen datuak (maila eta kopurua), ikastetxea eta arduradunaren datuak.

Bestetik, ikastetxeak ondorengo baldintzak onartzen dituela adierazi behar du:

- Ikasle kopuruan aldaketarik egon bada denboraz abisua eman:
 - Surf eskolan, beraiek aipatutako epea baino lehen
 - Gipuzkoako Surf Federazioan, ikastaroa baino 24 ordu lehenago



- Surf eskola aldaketarekin ados badago edo aldaketa ikasle kopuruan igotzea den kasuetan SOILIK moldatuko da faktura epea errespetatu ez den kasuetan.
- Surf eskolei ikastetxeek diru-sarrera egin ondoren ordainduko zaie.
- Ordaintzen ez duen ikastetxeak ezin izango dute diru-laguntza gehiagorik jaso hurrengo urteetan.

4. pausua: Ikastaroan parte hartzeko plazen esleipen prozesua

- a) Izen-emate epea bukatu eta hurrengo 3 egunen epean Gipuzkoako Surf Federazioak **zozketa bidez** esleitu dituzten ikastaroan parte hartzeko plazak.
- b) Zozketa egin eta 3 eguneko epean Gipuzkoako Surf Federazioak zozketaren emaitzaren berri emango die interesdun guztiei, hau da, plaza egokitu zaienei eta plaza egokitu ez zaienei.

5. pausua: Gipuzkoako Foru Aldundiko aplikazioan izen-ematea egitea ([esteka](#))

Ikastaroa egiteko plaza esleitu zaien ikastetxeko arduradunek Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko aplikazioan izen-emateak egingo dituzte ikastaroa egin aurretik (hastapeneko irakaskuntza jardueren atalean). Tramite hori derrigorrezkoa da ikasleak aseguruaz babestua egon daitezen eta jarduerari dagokion diru-laguntzaz gozatu ahal izateko. Izen-emateen gaineko kontrola Gipuzkoako Surf Federazioak eramango du.

Izen emate prozedurarekin arazorik izanez gero, jarri harremanetan kiroletako eskualde bulegoarekin. Harremanetarako kontaktua [hemen](#).

ORDAINKETA PROZEDURA

1. Ikastetxeak Federazioari ordainketa egin: Ikastaroa burutu ostean Federazioak ikastetxeari dagokion faktura pasatzen dio, Eskola Kiroleko programan zehazten den prezioaren arabera, baldin eta ikastetxeak Eskola Kiroleko aplikazioan izen-ematea egin badu. Bestela, surf eskolak ezarriko du ikastaroaren prezioa.
2. Federazioak surf eskolari ordaindu: Ikastetxeak ordainketa egin ostean, Federazioak dagokion surf eskolari ordainketa egiten dio. Horretarako surf eskolak Federazioari ikastaroarengatik faktura pasatzen dio.

	Ikastetxeak ikasleko ordaintzen duena	Surf eskolak ikasleko kobratzen duena
A aukera (1 saio)	12€	16€
B aukera (3 saio)	36€	48€

Hori horrela, ikasle bakoitzak 4 edo 12 euroko diru-laguntza jasotzen du ikastaroa burutzeko.